Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA: LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEA EIBARKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA (HAPO) BERRIKUSTEKO.

AURKIBIDEA

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

2.- AURREKARIAK

3.- BALDINTZA-AGIRI HONEN HELBURU XEHEA ETA IRISMENA

4.- ESPARRU ARAUTZAILEA

5.- HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN DOKUMENTU-EDUKIA

6.- KONTRATATU BEHARREKO ZERBITZUEN IRISMENA

7.- PERTSONA ADJUDIKAZIODUNEN BALDINTZA PROFESIONALAK, LANTALDE TEKNIKOA ETA HAREN EGINKIZUNAK. AZPIKONTRATAZIOA

8.- ERREDAKZIO-TALDEAREN BETEBEHARRAK

9.- EPEAK

10.- ZERBITZUEN PREZIOAK

11.- INFORMAZIOA LIZITAZIO-FASEAN

12.- ENPRESA ADJUDIKAZIODUNARI EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

13.- LANEN JABETZA

14.- ESKUBIDEEN LAGAPENA ETA ERABILERA

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

15.- LANAK ETA DOKUMENTUAK AURKEZTEKO ARAUAK

11.1.- Dokumentazioa aurkezteko formatua

11.2.- Aurkeztu beharreko dokumentu-aleen kopurua

16.- KONTRATUAREN ZUZENDARITZA

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Agiri honen xedea da Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren berrikuspena idazteko laguntza teknikoa eta aholkularitza kontratatzea, Udalak onartutako irizpideak eta helburuak betez eta Hirigintza Sailaren zuzendaritza teknikoarekin.

2. AURREKARIAK

Eibarko Herriaren Antolamendurako Plan Orokorra (aurrerantzean HAPO) behin betiko onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an egindako bilkuran; testu bategina Diputatuen 2007ko abenduaren 18ko Kontseiluak onartu zuen eta 2008ko urtarrilaren 22ko Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratu zen.

Haren garapenerako aurreikusitako epea amaituta, Eibarko Udaleko Gobernu Batzordeak, 2020ko uztailaren 24an, erabaki zuen HAPOren berrikuspena formulatzeko espedientea hastea eta Herritarren Partaidetzarako Programa onartzea, zeina 2020ko abuztuaren 10eko GAOn argitaratu zen, 150. zenbakian.

2021eko abenduaren 23an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Aurrerapenaren dokumentua jendaurrean jartzea hiru hilabeteko epean, 2022ko urtarrilaren 10etik apirilaren 11ra.

2022ko maiatzaren 3an, Ingurumenaren Kalitatearen zuzendariak ebazpena eman zuen, zeinaren bidez HAPOren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzen den. Harekin batera, kontsultatutako administrazio publikoen txostenak igorri ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Eibarko HAPOren berrikuspena idazteko oinarri izango diren irizpide eta helburuak onartzea. Irizpide eta helburu horiek 2023ko urtarrilaren 30eko GAOn (19. zk.) argitaratu ziren.

3. BALDINTZA-AGIRI HONEN HELBURU XEHEA ETA IRISMENA

Gaur egun indarrean dago Diputatuen Kontseiluak 2007ko abenduaren 18an behin betiko onartutako Hiri antolamendurako Plan Orokorra, baina 6 aldaketa egin zaizkio gerora, eta jarduketa-eremu batean antolamendua deuseztatua dago (EAEANen administrazioarekiko auzien salaren 2017ko apirilaren 21eko epaia).

HAPOren berrikuspenaren helburua zera da: plangintza orokorreko tresna bat ematea udalerriari, egungo gizarte-, ekonomia-, ingurumen-, kultura- eta hirigintza-egoerara egokitua, aplikatu beharreko legeriaren arabera, eta, bereziki, lurzoruaren eta hirigintzaren arloan indarrean dagoen legeriaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004530
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden garapen-xedapen eta -arauak eta horiekin bat datozenak).

Kontratuaren xedeak, gainera, beharrezkoak diren prozedura, azterlan eta dokumentu guztiak biltzen ditu jadanik egiten hasita dagoen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura amaitzeko (21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak); prozesuan eta planaren idazketan genero-ikuspegia txertatzeko eta planak generoaren arabera duen eragina ebaluatzeko (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, horren ondorengo aldaketak eta aplikatu beharreko gainerako arauak); hizkuntza-inpaktua ebaluatzeko (2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, eta 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa); eta planak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen zeharkako alderdietan (irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, euskara, klima-aldaketa, osasuna eta lurralde-erlazioa Debabarreneko gainerako lurraldeekin eta udalerri mugakideekin) eta beste alderdi sektorial batzuetan duen eragina ebaluatzeko, zeharkako alderdi sektorial horietako batzuk izanik, besteak beste, jasangarritasun energetikoa, ondarearen babesa, higiezin-parkearen birgaitzea, lurzoru kutsatuak, paisaia, etab.

Hori guztia, kontuan hartuta Eibarko HAPO berrikusteko herritarren partaidetzarako programa, Gobernu Batzarrak onartua (2020/8/10eko GAO), eta baita Aurrerakin-dokumentuak eta orain arte egindako irizpide eta helburuak ere. Plan berria idaztea eta hari lotutako material guztia prestatzea kontratatu nahi den laguntza teknikoko taldearen ardura izango da.

Herritarrei planaren berrikuspenaren eta onarpenaren fase bakoitza behar bezala ulertzen laguntzeko, herritarrek parte hartzeko saioak egingo dira. Saio horietan, aurkezpenerako behar den dokumentazio guztia erredakzio-taldearen esku egongo da. Horrela, berariaz, kontratu honen xedeak barne hartuko ditu, besteak beste, herritarrek parte hartzeko mekanismoak —herritarren partaidetzarako Programan jasoak—, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta programa hori garatzen duten beste araudi batzuetan ezarritakoak.

Gainera, enpresa adjudikaziodunak beharrezkoa den aholkularitza juridikoa eta teknikoa eman beharko du, bai eta Plan Orokorra idazteko izapide-prozesu osoan zehar Udalbatzak beharrezkotzat jotzen duena ere; halaber, Udalean edo inplikatutako administrazioetan egiten diren bileretara joango da, deialdia egiten zaionean.

Baldintza-agiri honek Eibarko udalerriko —2.456 Ha inguruko lurralde-eremua eta 26.926 biztanle— Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren lanak idazteko prozesu osoan kontuan hartu beharreko faseak ezartzen ditu.

Lanen faseen ezarpena horietako bakoitzaren berezko dokumentuen eduki materialarekin osatzen da, eta, gainera, dokumentu horiek egiteko bete beharreko epeak adierazten dira. Hori

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004530
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

guztia onartutako HAPO berrikusteko herritarren partaidetzarako programaren edukiarekin koordinatu beharko da.

Faseak eta haien dokumentu-edukia zehazteko, hirigintza-legeriak eta ingurumen-legeriak ezarritako eskakizunak hartu dira kontuan, etorkizuneko Plan Orokorraren edukiak legeria horiek ezarritakoa osotasunean errespeta dezan.

Era berean, baldintza-agiri honetan Udalbatzari aholkularitza emateko prozesua ezartzen da, plana berrikusteko prozesu osoan erredakzio-taldeak egin beharreko lana.

4. ESPARRU ARAUTZAILEA

Plan Orokorraren berrikuspena egiteko, honako hauek hartu beharko dira kontuan: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa; 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena; 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena; bai eta hirigintzaren arau-edukia duten eta indarrean dauden lege- eta erregelamendu-testuak ere.

Hirigintza-araudian jasotako aurreikuspenez gain, hirigintzaren arloan eta, beraz, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren berezko egitekoan eragin zuzena edo zeharkakoa duten beste xedapen batzuetan ezarritakoari jarraitu behar zaio.

Era berean, HAPO berriaren dokumentuetan kontuan hartu eta islatu beharko dira berrikuspena egiteko eta onartzeko prozesuan onar daitezkeen eta HAPO berrian aplikatzekoak izan daitezkeen arau-testuak.

5. HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN DOKUMENTU-EDUKIA

Plan Orokorraren funtsezko edukia Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 61. artikuluan ezarritakora egokituko da, edo aurreko legea ordezten duen beste edozeinetara, betiere preskripzio teknikoen agiri honetan garatuko diren ñabardurekin eta zehaztapenekin.

Hirigintza-antolamenduaren edukiaz gain —Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren izaerari propio dagokiona, legeriak ezarria—, Plan Orokorra idazteko lanek, halaber, ingurumeneko legeriak plan ororen prestaketa egituratzeko orduan ezartzen dituen fase guztietan egin beharreko dokumentuak jaso beharko dituzte:

- Oinarrizko legeria: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.

EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004530
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

- Erkidegoko legeria: 10/2021 Legea eta 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena, aplikatzekoa den guztian.

Ildo horretatik, kontratistak etengabeko harremana izan beharko du ingurumen-arloan eskumena duten administrazioekin, Plana egiteko prozesuan sor daitezkeen eskakizun guztiei erantzun egokia emateko.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoko txostenak egiteko ardura duen ingurumen-organoak hala eskatuta, azterlan sektorial espezifikoak edo gehigarriak egin behar badira, hala nola azterlan akustikoak eta abar, horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketa barruan sartutakotzat joko dira, eta, hortaz, kontratu honen irismenean sartuko dira.

Plan Orokorraren berrikuspena egiteko ezarritako fase bakoitzaren deskribapenari dagozkion ataletan, dokumentuen edukia eta irismena zehaztuko dira, aplikatzekoa den araudian horretarako ezarritakoa errespetatuz.

Gainera, hots-kutsadurari buruzko araudia aplikatzearen ondoriozko azterlanak jasoko ditu, bai eta lurzoru kutsatuei buruzko araudian ezarritakoa ere.

Alde batetik, azterketa bat egingo da, genero-ikuspegia udal-hirigintzan sartzeari buruzkoa, bai eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 1/2022 bigarren aldaketaren (martxoaren 3koa) printzipio orokorrak ere. Printzipio horiek berariaz jasoko dira aparteko kapitulu batean, alde batera utzi gabe Plan Orokorra berrikusteko ezarritako fase guzti-guztietan genero-ikuspegia txertatzea. Eta, bestetik, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazio-txostena egingo da. Eta, era berean, kontratuaren irismenaren parte dira eta kontratuan sartuta daude gaiaren inguruko lege sektorialek eska ditzaketen azterlanak (adibidez, trafikoarena, jasangarritasun energetikoaren azterlana, eta uholde-arriskuari buruzkoa).

Planaren fase guztietako dokumentu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira, bai eta erredakzio-taldeak herritarrentzat egindako txostenak, jendaurrean jartzeko eta hedatzeko dokumentuak, komunikazio idatziak eta abar. Dokumentazio osoan irudien eta hizkuntzaren tratamendu ez-sexista bermatuko da, indarreko xedapenen eta araudiaren arabera.

Era berean, fase guztietan sortutako dokumentu bakoitzaren kopia bat entregatuko da formatu informatikoan, Udalak berak zehaztuko duen formatu informatikoan. Hortik sortutako dokumentazioa Udalak lanaren zabalkundea egiteko prestatutako web-orrietan argitaratu beharko da; beraz, dokumentazio hori, bai formatuetan, bai edukian ere egokitu egin beharko da, argitaratu ahal izateko.

6. KONTRATATU BEHARREKO ZERBITZUEN IRISMENA

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Plan Orokorra berrikusteko ezarritako faseen azpiataletan adierazten da Plana osatuko duen dokumentu horietako bakoitzak zer eduki izan behar duen eta zer-nolako gutxienekoak bete behar dituen.

Lana honako fase hauetan egingo da, eta fase horietako bakoitzean ataza batzuk bete eta dokumentu hauek landuko dira:

- 0. fasea. Hasiera. Lan Programa (lanen plangintza) eta Herritarren Partaidetzarako Programaren analisia egitea, Aurrerapena, Irismeneko Dokumentua eta HAPO berrikusteko irizpideak eta helburuak.

- 1. fasea. Hasierako Onespenerako Dokumentua eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa idaztea.

- 2. fasea. Hasierako Onespenerako Dokumentua eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa jendaurrean jartzea.

- 3. fasea. HAPOri behin-behineko onespena ematea.

- 4. fasea. HAPOri behin betiko onespena ematea.

Fase bakoitzean, dokumentuen edukia eta irismena zehaztuko dira, eta, gutxieneko dokumentazio gisa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 62. artikuluak ("Dokumentazioa") ezarritakoa errespetatuko da; lanen adjudikaziodunaren obligazioa izango da baldintza-agiri honen eta aplikatu beharreko araudi guztiaren edukia betetzea.

Kontratuaren edukiaren barruan sartuta egongo dira planteatutako gaiak aztertzeko edo azaltzeko beharrezkoak diren txosten eta dokumentu guztiak, izan Udalbatzak eskatuta, izan erredakzio-taldeak berak proposatuta; bai eta eskatzen diren bilera, mahai-inguru eta azalpen guztietara joatea ere; sartuta egongo dira, halaber, joan-etorriengatik eta dietengatik sortutako kostuak eta dokumentua egitearekin lotutako beste edozein gastu.

Kontuan hartuta, Plan Orokor bat berrikusteak berekin dakarrela prozedura koordinatu bat abian jartzea, non alde batetik, fase bakoitzeko dokumentu-zehaztapenaren lanak idatziko diren, eta, bestetik, eta modu paraleloan, herritarrek parte hartuko duten eta Udalbatzak erabaki hartu beharko dituen, jarraian ezartzen diren faseek batera deskribatzen dituzte lehen aipatutako alderdi guztiak, eta epeak zehazten dituzte prozesu osoaren garapen koordinatu eta jarraitua ahalbidetzeko, Plan Orokorraren hasieratik behin betiko onartzen den arte.

Fase bakoitza genero-ikuspegia metodologikoki kontuan hartuta diseinatu eta garatuko da, sexuaren arabera bereizitako datuak eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko berariazko adierazleak kontuan hartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bigarren aldaketaren 46. artikuluak ezartzen duen bezala.

Plana egiteko, toponimia ofiziala hartu beharko da kontuan, Euskaltzaindiak onetsia, bereziki hirigintza-eremuak eta eraikinak identifikatzean, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren bosgarren kapituluaren arabera. Testu arauemaileen euskarazko itzulpenak hirigintza-arloan ezagutza eta esperientzia duen itzultzaile profesional batek egin beharko ditu, bere lanbidean aritzeko lege-baldintzak bete eta ISO 17100 ziurtagiria duen itzulpen-zerbitzu bateko itzultzaile profesional batek. Hori guztia Eibarko Udaleko Itzulpen eta Euskara Zerbitzuek gainbegiratuko dute.

Ez da jasotzen Herritarren Partaidetzarako Planaren edukia, baina azaldutako faseetan Plan horretan jasotako lanak eta dokumentuak ere egin beharko dira.

6.0. 0. fasea. Hasiera. Lan Programa egitea (lanen plangintza) eta Herritarren Partaidetzarako Programaren analisia, Aurrerapena, Irismeneko Dokumentua eta HAPO berrikusteko irizpideak eta helburuak.

Erredakzio-taldeak lan-programa xehe bat aurkeztu beharko du, non HAPOren berrikuspen-prozesuan garatu beharreko zereginak zehaztuko diren. Programa horretan, halaber, Herritarren Partaidetzarako Programan aurreikusitako lanak eta prozesuak jasoko dira. Lan-programa horrek aparte jasoko ditu dokumentuaren idazketari berariaz ez dagozkion epeak, hau da, Udalaren onespen-prozesuarekin lotutakoak (Antolamendurako Batzorde Aholkularia, Hirigintza Batzordea, Osoko Bilkura, jendaurrean erakustea, argitalpen ofizialak), txosten sektorialak egitearekin lotutakoak (baita Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostenak ere) eta ingurumen-izapidetzearekin lotutakoak; hori guztia, indarrean dagoen araudi aplikagarrian jasotakoaren arabera.

Era berean, dokumentu bereizi batean jasoko da zein izango diren elkarrizketa-bideak Eibarko Udalaren eta enpresa adjudikaziodunaren artean, zer komunikazio-bitarteko erabiliko duten herritarrekin komunikatzeko, ea sortutako dokumentaziorako gordailuren bat aurreikusten duten, eta abar.

Azkenik, erredakzio-taldeak aztertu egingo ditu HAPOren berrikuspen-prozesuan orain arte sortutako dokumentuak, eta ea zuzendu beharreko akatsik dagoen adieraziko du. Halaber, aldaketak proposatu ahal izango zaizkio onartutako Herritarren Partaidetzarako Programari.

0 fasearen epea: 1 fasearen epea hasi baino bi (2) aste lehenago.

6.1. 1. fasea. Hasierako Onespenerako Dokumentua eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa idaztea.

Udal zerbitzu teknikoek 0 fasean egindako lanei oniritzia eman ondoren, erredakzio-taldeak Hiri Antolamendurako Plan Orokorra izango den dokumentua lantzeko fasea hasiko da.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004530
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Plan Orokorraren dokumentazioak zehatz-mehatz bete beharko du Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluetan ezarritakoa, hirigintzaren egiturazko antolamenduarekin eta hirigintza xehatuaren edukiaren garapenarekin lotuak (lege bereko 53. eta 56. artikuluak jasotakoarekin, alegia), bai eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen gainerako artikuluak ere, zeinek egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren edukiaren beste alderdi batzuk ezartzen dituzten.

Bestalde, ingurumen-ebaluazio estrategikoa behar duten planetarako Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. artikuluan ezarritakoa ere bete beharko du, bai eta Hirigintza Estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretua, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina (urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) eta Plan Orokor batek bete beharreko baldintzak garatzen, aldatzen edo ezabatzen dituen beste edozein arauditan ezarritakoa ere.

Jarraian, laburbilduta, Plan Orokorraren dokumentazioaren gutxieneko edukia zehazten da. Dokumentazio hori xehekiago jaso eta garatu beharko da Plan Orokorra idazteko lehiaketara aurkezten diren taldeek egiten dituzten eskaintzetan.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 62. artikuluak plan orokorretarako legez ezarritako edukia sistematizatu ahal izateko, dokumentazio grafikoaren eta idatzizko dokumentazioaren arteko banaketa klasikoa eginez, Planean sartu beharreko dokumentuen edukia garatuko da.

A. ANTOLAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIO- ETA JUSTIFIKAZIO-MEMORIA. Dokumentu honek atal hauek ditu:

- Hirigintza-informazioa
  - o Ingurune fisikoari buruzko informazioa
  - o Informazio soziourbanistikoa
  - o Udalerrian eragina duen udalaz gaindiko plangintza
  - o Indarrean dagoen antolamenduaren analisia eta diagnostikoa
  - o Plana egitearen komenigarritasuna, bidezkotasuna eta egokitasuna
  - o Antolamenduaren irizpideak.
  - o Aukeratutako ereduaren deskribapena eta justifikazioa.
  - o Antolamendua egituratzen duten sistema orokorrak

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

- Ingurune fisikoaren eta ondarearen babesa
- Bizitegi-kokaguneak
- Jarduera ekonomikoetarako eta tertziarioetarako kokaguneak.
- Hiri-lurzoruaren antolamendua.
- Lurzoru urbanizagarriaren antolamendua.
- Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua
- Antolamendu-ahalaren jarduna eta, ondorioz, proposatutako hirigintza-antolamenduaren edukia nabarmen baldintzatzen dituzten elementuak eta preexistentziak zein diren azaltzen duen hirigintza-informazioaren laburpena.

- Aurrerapenaren fasean egindako eta aurkeztutako antolamendu-proposamenen justifikazioa, proposatutako aukeren azalpenarekin.

- Alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren deskribapena, herritarren parte-hartzea kontuan hartuta. Irizpideak eta helburuak finkatzeko kontuan hartutako irizpideak.

- Herritarrek Aurrerapenean parte hartzeko prozesuan aurkeztu dituzten alegazioen eta iradokizunen edukiaren laburpena, eta iradokizun horiek onartzeari edo ez onartzeari buruzko edukiaren azalpena.

B. INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOA ETA HURA PLAN OROKORREAN TXERTATU IZANAREN JUSTIFIKAZIO-DOKUMENTUA

Irismeneko dokumentua kontuan hartuta, erredakzio-taldeak Ingurumen Azterketa Estrategikoa egingo du. Bertan, plana edo programa aplikatzeak ingurumenean izan ditzakeen ondorio adierazgarriak identifikatu, deskribatu eta ebaluatuko dira; halaber, ingurumenaren aldetik eta teknikoki bideragarriak diren arrazoizko aukera batzuk ere identifikatu, deskribatu eta ebaluatuko dira, planaren edo programaren helburuak eta aplikazio-eremu geografikoa aintzat hartuko dituztenak. Azterlanak ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. Eranskinean zehaztutako informazioa jasoko du gutxienez.

Erredakzio-taldeak Plan Orokorraren proposamena egingo du, bertan ingurumen-azterketa estrategikoaren zehaztapenak txertatuz; eta txertaketa hori nola egin den jasotzen duen dokumentu bat landu eta onartuko du.

C. INFORMAZIO PLANOAK

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Informazio-planoek indarreko Plan Orokor eguneratuaren informazioa jasoko dute Udalbatzak onartutako aldaketen arabera eta indarrean dagoen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen kontzeptu-sistematikari jarraituz, eta egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren berezko alderdiak jaso eta zehaztuko dituzte.

Honakoak jaso beharko dira:

- Udalerriaren kokapena (Erkidegoa, Lurralde Historikoa, Esparru Funtzionala).
- Udalerriaren topografia. Hasierako egoera.
- Udalerriaren partzela-planoa. Hasierako egoera.
- Indarreko antolamendua.
- Gestio-planoak Egikaritze Unitateen zedarriztapen eguneratuarekin, edo indarreko udal-araudian egun jasota dauden beste gestio-eremu batzuk, bai eta haien garapen-egoera ere.
- Dauden azpiegituren eta sareen planoak eta goragoko mailako planetan aurreikusitakoak.
- Dauden bide-azpiegituren planoak: errepideak eta bideak.
- Udalaz gaindiko antolamenduarekiko bateragarritasuna.
- Ingurune fisikoaren azterketaren laburpena.
- Zaraten Mapa.
- Garapen-eremu potentzialak eta udalerriaren antolamendurako funtsezko elementuak.

D. EGITURAZKO ANTOLAMENDUAREN PLANOAK

Egiturazko antolamenduaren planoek zona publiko eta pribatu guztiak definituko dituzte, udalerri osoa barne hartuta, eta zonak bi irizpide gainjarrien arabera bereiziko dituzte, lurzorua eta baimendutako jardueren titulartasuna kontuan izanda; eta, bestetik, sistema orokor publiko edo pribatuko zona izaera aintzat hartuta.

Era berean, egiturazko antolamenduaren planoek sistema orokorren sareko zona jakin batzuk egikaritze-eremuetan atxikitzea edo sartzea ezarriko dute, eremu horiek lortzeko eta, hala badagokio, haiek egikaritzeko eta hirigintza-eraikigarritasunaren titularrek kostua beren gain hartzeko.

Egiturazko antolamenduko planoetan, halaber, hiru lurzoru-motetako bakoitzean sartzen diren lursailen definizio grafikoa jasoko da; eta urbanizatzeko egokia den lurzoruan, lurzoru sektorizatuaren eta sektorizatu gabearen kategoriak nabarmenduko dira. Lurzoru-mota horretan

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

adieraziko da, halaber, zer sektore antolatzen diren Plan Orokorraren dokumentaziotik, eta beste zein sektore geroratuko diren Plan Partzial baten antolamendu xehatua egin arte.

Hiri-lurzorua, hiri-lurzoru finkatuaren edo finkatu gabearen kategoria antolamendu xehatuko planoetan zehaztuko da.

E. ANTOLAMENDU XEHATUAREN PLANOAK

Antolamendu xehatuaren planoek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 56. artikuluan ezarritako zehaztapen guztiak jasoko dituzte, eta jasoko dituzte, orobat, antolamendu xehatuari buruz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen beste artikulu batzuetan modu sakabanatuan ageri diren zehaztapen guztiak.

Plano hauen aplikazio-eremua egiturazko antolamenduak Plan Berezi batean sartzea agintzen ez dituen hiri-lurzoruko Zona guztiak izango dira, eta, era berean, antolamendu xehatu hori aplikatuko zaie egiturazko antolamenduak Plan Orokorraren dokumentaziotik antolamendu xehatua ezartzeko beharra adierazten duen lurzoru urbanizagarriko sektoreetako lursailei.

Antolamendu xehatuko planoetan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 56., 137., 139. eta 140. artikuluetan ezarritako egikaritze-eremu guztien mugaketa jasoko da.

F. HIRIGINTZA-ARAUAK

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta, hala badagokio, hura garatzeko araudian ezarritakoaz gain, hirigintza-araudiak Plan Orokorra aplikatzeari buruzko xedapen orokorrak ezarri beharko ditu bere edukiaren oinarrizko eta lehen mailako elementu gisa. Gainera, honako zehaztapen hauek ezarri beharko ditu:

- Lurzoruaren hirigintza-kalifikazioaren araubidea, honakoak kontuan hartuz: hirigintza-erabilerak, eraikigarritasun fisikoa eta urbanistikoa eta hirigintza-kalifikazioaren erregulazioa eta sistematizazioa, egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren alderdietan banakatuta.

- Hirigintza-antolamenduari gainjarritako baldintzak eta haien araudia.

- Planeamenduaren araubide juridikoa eta egikaritze-araubidea, honakoak kontuan hartuz: lurzoruaren sailkapena, egikaritze juridikoaren araubidea, eraikigarritasunak esleitzearen araubidea, eta urbanizazioa eta eraikuntza egikaritzeko araubidea.

- Lurzati eraikigarrien eraikuntza- eta erabilera-araubidea, eraikuntzaren baldintza orokorrak ezarrita, eta hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian baliabideak ezarrita, bai eta lurzoru urbanizaezinean ere.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

- Plangintzarekin bat ez datozen eraikinen, eraikuntzen eta erabileren araubidea, ahalbidetutako kategoriak garatuz, kasu bakoitzean baimen daitezkeen egintzak eta erabilerak adierazita.

- Lurzoru urbanizaezineko zonetan berariaz aplikatu beharreko hirigintza-arauak, ingurumena, paisaia eta natura babesteko alderdirik garrantzitsuenak kontuan hartuta.

- Kultura-, natura- eta paisaia-ondarea babesteko arauak.

- Araua iragankorrak.

- Hartu beharrekotzat jotzen den beste edozein.

G. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN AZTERLANA

Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioari buruzko azterlana zehaztasunez idatzi beharko da, proposatutako hirigintza-antolamendua gauzatzeko Udalak duen ahalmen ekonomikoa ebaluatu eta justifikatzeko.

Plan Orokorra gauzatzeko Bideragarritasun Ekonomiko eta Finantzarioari buruzko Azterlanean jasotako epea zortzi urtekoa izango da, Plan Orokorra behin betiko onartzen denetik kontatzen hasita.

Bideragarritasunaren Azterlanak sistema orokor publikoen sareko elementuak egikaritzearen kostuen ebaluazio ekonomikoa jasoko du; betiere elementu horien finantzaketa ez bazaio atxikitzen arlo eta sektore jakin batzuei. Ebaluazio ekonomiko hori, aipatutako elementu horiek egikaritzeko eskumena duen administrazioaren arabera banakatuta, jarraian adierazten den eskemaren arabera egin beharko da:

- Komunikazio- eta trenbide-azpiegituren, oinezkoentzako bideen eta bizikletentzako bideen sistema orokorren zuzkidura-sareko elementuak.

- Espazio libreen sistema orokorren eta jabari eta erabilera publikoko berdeguneen zuzkidura-sareko elementuak.

- Hezkuntza-, kultura-, osasun-, laguntza-, kirol- eta administrazio-erabileretarako titulartasun publikoko sistema orokorren eta ekipamendu kolektiboen zuzkidura-sareko elementuak, eta bizitza komunitarioarekin zerikusia duten beste batzuk.

- Premia berezia duten kolektiboei aldi baterako ostatua eta gizarte-premia dutenei ostatu emateko zuzkidura-bizitokietarako zuzkidura-sare komunitarioaren elementuak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 17. artikuluan ezarritakoaren arabera, behar izanez gero.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004530
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

- Zerbitzu orokorren sarearen oinarrizko azpiegiturak ur- eta energia-hornidurako zerbitzuen hornidurarekin lotutako esku-hartze bereziki esanguratsuetan.

- Dauden ur-ibilguetan obra publikoak egitea, uholde-arriskuei aurre egiteko.

Bideragarritasun Ekonomiko Finantzarioaren Azterlanak egiturazko antolamenduak proposatutako area eta sektoreetako urbanizazio-obren kostuak ere aztertuko ditu, eta kostu horien osagaiak bereiziko ditu, kontuan hartuz Plan Orokorraren beraren egiturazko antolamenduaren zehaztapenak eta baita Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak horretarako ezarritako xedapenetan jasotako beste zehaztapen batzuk ere.

Desjabetzeen aurreikuspenak ezarri beharko dira, 2/2006 Legearen 185. artikuluak izan ditzakeen ondorioetarako.

Azkenik, Bideragarritasun Ekonomiko Finantzarioari buruzko Azterlanak txosten bat izango du, eta bertan argi eta garbi adieraziko da proposatutako plangintzako zehaztapenak egikaritzearen bideragarritasun ekonomikoa, bai Udalaren ahalmen ekonomikoaren ikuspegitik, bai gainerako administrazio publikoen ikuspegitik (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta, hala badagokio, Estatuko Gobernua); bai eta hari atxikitako eremuak, sektoreak eta sistema orokorrak egikaritzeari lotutako ekimen pribatuaren ikuspegitik.

H. JASANGARRITASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA

Jasangarritasun ekonomikoari buruzko memoria. Bertan, bereziki haztatuko da hirigintza-jarduerak udal-finantzetan duen eragina, beharrezko azpiegiturak ezartzeagatik eta mantentzeagatik, edo ondoriozko zerbitzuak abian jartzeagatik eta eskaintzeagatik. Haztatuko da baita ere, urbanizazioaren xede den lurzorua kendu ondoren, hirigintza-jarduerak erabilera produktiboetarako izango den azaleran eta lurzoruaren egokitzapenean izango duen eragina.

I. BABESTU BEHARREKO ELEMENTU ETA ONDASUNEN KATALOGOA

Katalogoek babestu beharreko ondasun artifizialak eta naturalak identifikatzea dute xede, haien balioa eta interesa kontuan hartuta, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 76. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aipatutako identifikazioaz gain, katalogatutako ondasunetan egin daitezkeen jarduketei buruzko arauak eta loturak ezarri beharko dira, bai eta babestutako ondasunetan eta haien ingurunean koka daitezkeen erabileren mugak ere.

Ondasunen zerrenda hainbat kategoriatan sistematizatu beharko da, jarraian adierazitakoaren arabera:

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

- Udalerriko hirigintza-ondarearen ondasun eta elementuak.
- Udalerriko arkeologia-ondarearen ondasun eta elementuak.
- Natur izaerako guneak eta elementuak.

Aurreko banaketa osatzeko, udalaz gaindiko interesa duten ondasunak zehaztu beharko dira, Eusko Jaurlaritzako Ondare Zuzendaritzak horretarako ezartzen duenaren arabera, eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legean ezarritakoaren arabera, eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzako organo eskudunak irekitako edo halakotzat jotako monumentu-multzoak, monumentuak eta abar kontuan hartuz.

Udalaz gaindiko interesa duten ondasun eta elementuek hasiera emateko edota deklaratzeko espedienteetan jasotako oharrak errespetatu beharko dituzte, bai eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ezarritakoak ere, esleitzen zaien babes-maila kontuan hartuta. Babestutako gainerako ondasun eta elementuak tokiko intereseko zerrenda batean sartuko dira, eta katalogoan goian adierazitako babes-arauak ezarriko dira, Plan Orokorraren zehaztapenen arabera.

Nolanahi ere, katalogoan jasotako ondasun eta elementuen babesari buruzko zehaztapen guztiak Plan Orokorreko hirigintza-arauen titulu batean sartu beharko dira berariaz eta argi, eta, gainera, babestutako ondasun eta elementu guztien kokapena eta kategorizazioa berariaz jasotzen dituen plano bat egingo da.

J. URBANIZAZIO, ERAIKUNTZA ETA ERAIKINGINTZA, ETA INGURUMEN ORDENANTZAK

Hirigintza-antolamenduaren udal-ordenantza osagarriak eratzeko dokumentua idatziko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen "Hirigintza-antolamenduaren udal-ordenantza osagarriak" izeneko 75. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dokumentu horrek urbanizazioari, eraikuntzari, eraikingintzari eta ingurumenari buruzko beste edozein udal-ordenantza ordeztea ekarriko du, baldin eta mota horretako dokumentuetarako edukian legez jaso badaiteke. Helburu horrekin, udalerrian dauden mota horretako ordenantzak aztertuko dira, haien erregulazioak ordenantza orokor honen barruan sartzeko.

Ordenantzaren edukia hiru kapitulu handitan egituratuko da: urbanizazio-ordenantzak, eraikuntza- eta eraikingintza-ordenantzak eta ingurumen-ordenantzak, eta argi eta garbi ezarri beharko da zein den horien jardun-eremua eta maila hierarkikoa, lurzoru urbanizagarriko eta hiri-lurzoruko sektore eta area desberdinen antolamendu xehatuko hirigintza-arauen zehaztapenei dagokienez.

EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004530
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Ordenantzatik aparteko atal gisa, edo egokiagotzat jotzen den beste edozein modutan, lehendik dauden eraikinak irisgarritasun-baldintzetara egokitzea aztertu eta arautuko da, bai eta, hala badagokio, eraikin horiek energia-eraginkortasuna hobetzeko irizpideetara egokitzea ere.

Era berean, lehendik dauden eraikinetako beheko solairuetan etxebizitzak egiteko baldintzei buruzko proposamena egingo da.

K. GENERO IKUSPEGIA

Dokumentu honek berrikusitako HAPOren xedapenei eta ordenantzei erantsitako neurrien diagnostikoa eta diseinua jasoko ditu, eta honako atal hauek izango ditu:

- Eraikitako espazioa erabiltzeko eta gozatzeko eskubidean genero-ikuspegiak duen egoeraren alderdi garrantzitsuen memoria, eta plana aplikatu ezean izan dezakeen bilakaera.
- Hiri-diseinuak eragiten dituen sexuen arteko desberdintasunak.
- Desberdintasunak neutralizatzen dituzten eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzen duten neurriak, irizpideak, helburuak eta irtenbideak.
- Eraikitako espazioak emakumeengan duen eragin negatiboa prebenitzeko, murrizteko eta ezabatzeko aurreikusitako neurriak.
- Aurreikusitako alternatibak aukeratzeko izandako arrazoien laburpena.
- Zaintza-programa bat, jarraipena egiteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dituena.

Inplikatutako arloetako udal-teknikariekin saio tekniko bat egingo da, egindako lana etorkizunean transferituko dela ziurtatzeko. Saioaren edo saioen ezaugarriak lizitazio-prozesuan baloratzeko aurkeztutako proposamenean zehaztuko dira.

L. HIZKUNTZAREN IKUSPEGIA

Atal berezi bat sartuko da hizkuntza-inpaktua aldez aurretik ebaluatzeko, ELE tresnaren bidez, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Ebaluazio horren helburua zera da: euskararen erabileraren aurkako eragin negatiborik ez sortzea euskarak osasun ona duen eremu eta egoeretan, eta, sortzen bada, inpaktu horrekin batera neurri zuzentzaile egokiak hartzea.

Hala, hizkuntza-inpaktuaren aldez aurreko ebaluazio bat egin beharko da, plangintza-tresnetan prebentzioaren ikuspegia txertatzeko.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

M. JASANGARRITASUN ENERGETIKOARI BURUZKO AZTERLANA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen arabera, lurralde-antolamenduko, hirigintza-plangintzako eta garraio-azpiegituretako tresnek jasangarritasun energetikoari buruzko azterlan bat jaso beharko dute, lege horretan ezarritako baldintzetan.

Plangintzan egiten diren zehaztapenak kontuan hartuko dira mendeko tresnetan.

Jasangarritasun energetikoari buruzko azterlanak honako alderdi hauek jasoko ditu:

- Jasangarritasun energetikoaren eskakizunetara egokitzeari buruzko ebaluazioa.

- Eraikinetan eta azpiegituretan energia berriztagarriak ezartzeari buruzko ebaluazioa.

- Mugikortasunaren azterketa, energia-kontsumoaren ondorioetarako, honako alderdi hauek jasoko dituena: garraio pribatuaren erabileraren alternatibak eta motorizatu gabeko mugikortasuna eta mugikortasun eza bultzatzeko politikak. Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana hartuko da oinarritzat.

- Kanpoko argiteria publikoaren azterketa, espazio publiko bakoitzerako argiztapen-maila eta -denbora egokiak ebaluatzeko.

Lurraldea eta hirigintza antolatzeko tresnek legez ezarritako ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozeduretako bat betetzen dutenean, ingurumen-ebaluazioko prozedura horren barruan sartuko dira eskatutako alderdiak, eta ez da beharrezkoa izango ingurumen-ebaluazioko prozedura horiek arautzen dituen legeriak eskatzen dituen jasangarritasun-azterketaren alderdiak bikoiztea.

N. ZARATAREN MAPA, ZARATA-MAPAREN EKINTZA-PLANAK, EREMU AKUSTIKOEN MUGAKETA ETA KUTSADURA AKUSTIKOARI BURUZKO ORDENANTZA

13/2012 Dekretuaren jarraibideak kontuan hartuz, Plan Orokorraren berrikuspen honetan udalerrian dauden ekintza akustikoari eta zarataren prebentzioari buruzko planak jasoko dira. Planean honako hauek sartu eta zedarritu ahal izango dira (beharrezkotzat iritziz gero): ekintza-planak, akustika babesteko eremuak, zonako plan akustikoak, lehentasunezko jarduketa-eremuak, zortasun akustikoen mugaketa, babes akustiko bereziko eremuak eta egoera akustiko berezian dauden eremuak. HAPOren berrikuspenean mugatutako eremu eta sektoreetan izandako afekzioak adieraziko dira eta zonakatzean izan daitezkeen aldaketak.

Hori guztia Eibarko zarata-mapa onetsian oinarrituko da; hala ere, behar izanez gero, aldatu edo egokitu egingo da.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

O. PLAN OROKOR BERRIKUSIAREN ETA INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN LABURPEN-DOKUMENTUA

Plan Orokorraren eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren bertsio laburtu hau informazio publikoaren fasea errazteko egin da, eta honako hauek jaso beharko ditu: Planaren azken proposamenean hirigintza- eta ingurumen-alderdiak txertatzeari buruz aukeratu diren alternatiben justifikazioa, irismeneko dokumentuari nola egokitzen zaizkion, eta egindako kontsulten emaitzak eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat. Dokumentu ez-teknikoa izango da, hizkuntza errazekoa, eta, ahal dela, erraz ulertzeko moduko grafikoak eta irudiak izango ditu.

1 fasearen epea: Sei (9,5) hilabete.

Fase honen amaieran, Plan Orokorra osatzen duten dokumentu guztiak entregatuko dira.

UDAL PLANGINTZAKO BATZORDE AHOLKULARIA:

Plan Orokor Berrikusiaren eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren dokumentua Plangintzako Batzorde Aholkulariak aztertu, baloratu eta proposatuko du, osoko bilkuran onartu aurretik. Dokumentu hori erredakzio-taldeak aurkeztuko du Kontseiluaren aurrean.

UDALBATZAREN HASIERAKO ONESPENA:

Udalbatzak Plan Orokorraren dokumentazioaren lanak jasotzen dituenean, Ingurumen Azterketa Estrategikoa barne, hasierako onespena eman aurretik, goian adierazitako dokumentazioa bidaliko zaie txostena eman behar duten administrazio sektorialei, zeinek txostena egin beharko duten onarpena eman aurretik. Txosten horren edukia balorazio-txostenari erantsiko dio Plana idatzi duen taldeak.

Udaleko zerbitzu teknikoek Plan Orokorraren dokumentazioaren edukia aztertu eta txostena egin ondoren, hasierako onespena emango zaio eta jendaurrean jarriko da.

6.2. 2. fasea. Hasierako Onespenerako Dokumentua eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa jendaurrean jartzea.

A. PLAN OROKORRAREN HASIERAKO ONESPENAREN ONDORENGO ADMINISTRAZIO-IZAPIDETZEA

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Plan Orokorraren hasierako onespena eman ondoren, administrazio sektorialen txostenak eskatuko dira.

B. JENDAURREAN JARTZEA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA, PLAN OROKORRAREN DOKUMENTAZIOA IZAPIDETZEARI DAGOKIONEZ

Hasierako onespena GAOn argitaratu eta hurrengo bi hilabeteetan, Plan Orokorra jendaurrean jarriko da. Epe horretan, erredakzio-taldeak honako zerbitzu hauek emango ditu herritarren parte-hartzea errazteko:

-Udalak lokal bat jarriko du herritarrek aurrez aurreko kontsultak egin ahal izan ditzaten HAPOren edukiari eta alegazioen formulazioari buruz. Erredakzio-taldeak honako material hau prestatu beharko du lokal horretarako: HAPOren proposamenak azaltzen dituzten panelak eta paperezko dokumentuaren hiru kopia oso.

-Erredakzio-taldeak aurrez aurreko arreta eman beharko die lokal horretara joaten diren pertsonei, gutxienez astean hiru egunetan, jendaurrean ikusgai egongo den epean.

-HAPO berria jendaurrean azaltzeko gutxienez hiru saio ireki egingo dira, eta Erredakzio Taldeko teknikari kualifikatuek gidatuko dituzte.

-Udalaren web-orrian sartzeko beharrezkoa den dokumentazio digitala aurkeztuko da.

-Aurkezpen-bideo bat egingo da, HAPOren edukia azaltzeko bitarteko dinamikoena den aldetik.

C. HASIERAKO ONESPENAREN ONDOREN AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNAK ETA HERRITARREN PARTE HARTZEAREN LABURPENA

Hasierako onespenaren ondoren jendaurrean jartzeko epea amaitu eta sektore-eskumenak dituzten administrazioen txostenak jaso ondoren, Udalbatzak eragindako administrazio publikoen txosten guztiak eta ingurumen-ebaluazioaren prozesuan interesdunek egindako alegazioak bidaliko dizkio erredakzio-taldeari, batzuei eta besteei buruzko txosten tekniko/juridikoa egin dezaten.

Aurkeztutako alegazioen edukiari buruzko txosten indibidualizatuak emateaz gain, erredakzio-taldeak laburpen-txosten txiki bat egingo du herritarren partaidetza-prozesuari buruz; laburpen horrek azalpen-saioetan antzemandako gorabehera nagusiak jasoko ditu, txosten horiek Udalbatzak azter ditzan.

Prozesu horietan emakumeek % 40tik beherako parte-hartzea izan dutela atzemanez gero, saio espezifikoak egingo dira profil desberdineko emakumeekin, emakumeen beharrak, interesak eta iritziak jasotzeko, Berdintasunari buruzko 4/2005 Legean eta horren ondorengo aldaketetan eta

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

EAEko Lurralde Antolamenduko Jarraibideak onartzen dituen uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren 30. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Banakako txostenak eta laburpen-txostena egiteko epea BI HILABETEKOA izango da, erredakzio-taldeak aurkeztutako alegazio guztiak jasotzen dituen egunetik kontatzen hasita.

2. fasearen epea: Bi (2) hilabeteko epea dago banakako txostenak eta laburpen-txostena egiteko, erredakzio-taldeak aurkeztutako alegazioen inguruko dokumentazio guztia jasotzen duen egunetik kontatzen hasita.

6.3. 3. fasea: HAPOren behin-behineko onespena

Udalbatzak, administrazio sektorialen txostenak eta erredakzio-taldeak alegazioei emandako erantzuna jaso ondoren, behin-behinean onetsiko du Plan Orokorra, Planeamenduko Kontseilu Aholku-emaileak txostena egin ondoren, dagozkion aldaketekin, hargatik eragotzi gabe hasierako beste onespen bat emateko erabakia hartzea.

Erredakzio-taldeak, lehen aipatutako bi aukeretako edozeinetan, behin-behineko onespenerako dokumentua (hasierako onespenaren agiri berria, hala bada kasua) eta Udalbatzak onartutako aldaketak jasotzen dituen dokumentazio bategina idatziko ditu, dokumentu hori onartzeko prozedurarekin jarraitu ahal izateko.

Beharrezkoa balitz Ingurumen Azterketa Estrategikoa ere aldatuko du.

Horrez gain, laburpen-dokumentu bat idatziko du, eta hor deskribatuko du nola txertatzen diren behin-behineko onespen-dokumentuan ingurumen-alderdiak, Ingurumen Azterketa Estrategikoa eta horiek nola egokitzen zaizkion irismeneko dokumentuari, egindako kontsulten emaitzak eta emaitzok nola hartu diren gogoan.

3. fasearen epea: Bi (2) hilabete, Udalbatzaren erabakitik behin-behineko onespenerako dokumentazio bategina prestatzeko.

Lau (4) hilabete hasierako onespenerako dokumentazioa prestatzeko, berriz ere Udalbatzaren erabakitik.

6.4. 4. fasea. HAPOren behin betiko onespena

A. INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOA ETA LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN TXOSTENA

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004530
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Behin-behineko onespenaren agiri bategina eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa batera bidaliko dira ingurumen-organo estrategikora —ingurumen-adierazpen estrategikoa egiteko— eta Euskal Autonomia Erkidegoko Antolamendu Batzordera txosten loteslea egin dezan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen adierazpena eta txostena jaso eta Hirigintza arloko udal-organo eskudunak haien edukia aztertu ondoren, erredakzio-taldeari helaraziko zaizkio, ezarritako baldintzak betetzeko behar diren jarraibideekin. Talde horrek ingurumen-adierazpen estrategikoaren zehaztapenak eta txostenaren baldintzak txertatuko dituen nahitaezko agiri bategina prestatuko du, eta, era berean, txertaketa hori nola egin den azalduko duen dokumentua idatziko du.

B. BEHIN BETIKO ONESPENAREN ERABAKIA HARTZEA

Nahitaezko agiria prestatu ondoren, Plan Orokorra behin betiko onesteko erabakia hartuko da.

Halaber, erredakzio-taldeari dagokio Plan Orokorraren behin betiko onespenaren aurka aurkez daitezkeen errekurtsoen edo edozein motatako idazkiren inguruko txostenak egitea.

4. fasea: Bi (2) hilabete goian adierazitako dokumentazioa prestatzeko, Udalak Planaren edukiari buruz hartu duen erabakia jasotzen duenetik kontatzen hasita. Dokumentazio hori behin betiko onespenaren erabakia hartu aurretik prestatuko da.

HAPOren behin betiko onespenaren erabakia eta haren Hirigintza Araudi osoa argitaratu ondoren, eta administrazio-bideko edo auzibideko errekurtsoetarako legez ezarritako epea amaitu ondoren, Udaleko bulego teknikoak egon daitezkeen errekurtsoak bidaliko dizkio erredakzio-taldeari, haien inguruko txosten juridikoak idatz ditzan. Errekurtso horietakoren bat kontuan hartzea bidezkotzat jotzen bada, erredakzio-taldeak zuzenketa horiek bilduko dituen HAPOren testu bategina idatziko du.

7. PERTSONA ADJUDIKAZIODUNEN BETEKIZUN PROFESIONALAK TALDE TEKNIKOA ETA HAREN EGINKIZUNAK AZPIKONTRATAZIOA

Kontratazio honetan parte hartzeko eskatzen diren gutxieneko giza baliabideak hauek dira:

- Taldearen zuzendaria: arkitektoa

Arkitekturako goi-mailako titulua izan behar du, eta egiaztatu behar du talde bateko zuzendari, koordinatzaile edo arduradun gisa parte hartu duela behin betiko onartu den planeamendu orokorreko tresna bat (1) formulatzen edo berrikusten azken 10 urteetan, kontratazio-espediente hau onetsi den egunera arte. Plangintza edo planeamendu orokorreko tresna hori ezin da izan 7.000 biztanletik beherako udalerri batekoa.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Betekizun hori egiaztatzeko, taldeko zuzendariaren titulazioaren kopia aurkeztuko da, bai eta dokumentu horien jasotzaile izan diren toki-erakundeek emandako ziurtagiriak ere eskatutako alderdiak adieraziz.

- Lege-aholkularia

Zuzenbideko lizentziatura titulua edo ofizialki horren baliokidea den beste titulu bat eduki behar du, eta egiaztatu behar du taldearen lege-aholkulari gisa parte hartu duela plangintza orokorreko tresna bat (1) formulatzen edo berrikusten azken 10 urteetan, kontratazio-espediente hau onetsi den egunera arte. Plangintza edo planeamendu orokorreko tresna hori ezin da izan 7.000 biztanletik beherako udalerri batekoa.

Betekizun hori egiaztatzeko, taldeko zuzendariaren titulazioaren kopia aurkeztuko da, bai eta dokumentu horien jasotzaile izan diren toki-erakundeek emandako ziurtagiriak ere eskatutako alderdiak adieraziz.

- Ingurumen-teknikaria

Plan Orokorraren antolamenduaren ingurumen-alderdiei buruzko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketa eta aholkularitza metodologikoa egiteko, goi-mailako unibertsitate-tituludun batek parte hartu beharko du taldean. Titulazio hauetakoren bat izango du: Geografia, Biologia, Geologia, Ingurumen Zientziak, Nekazaritza edo Basogintza edo Mendi Ingeniaritza, edo ingurumen-arloko eskumenak dituen beste unibertsitate-titulazio ofizial baliokide bat. "

Gutxienez bost (5) urteko esperientzia egiaztatu beharko da ingurumen-ebaluazioaren arloan eta, "Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuaren Azterketa", "Ingurumen Jasangarritasunari buruzko Txostena" edo "Ingurumen Azterketa Estrategikoa", azterketa horietako bat gutxienez egindakoa izango da Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren edo Arau Subsidiarioen lehen formulazioen edo berrikuspen osoetan; eta, agiri horiek behin betiko onespena jasotakoak behar dute izan adjudikazio honen proposamenak aurkezteko egunean. Ez dira halakotzat hartuko berrikuspen partzialak edo aldaketa puntualak.

Lan horiek egin direla frogatzeko, administrazio jarduleak hirigintza-tresnaren behin betiko onespenaren ziurtagiria aurkeztuko du, zeinean ingurumeneko teknikari gisa izendatutako profesionalak parte hartu duela adieraziko duen.

- Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza titulua eta hiru (3) urteko esperientzia egiaztatu behar du hirigintza-planeamenduan, urbanizazio-proiektuetan eta/edo mugikortasun-azterlanetan.

Profesionalaren erantzukizuneko aitorpenaren bidez egiaztatuko da esperientzia, eta aldi horretan egindako lan eta jarduera garrantzitsuenak zehaztuko dira.

- Aditua herritarren parte-hartzean

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Herritarren partaidetzan aditua den pertsona batek izan beharko du taldeko kide, unibertsitateko goi-mailako titulazioa izango du eta parte-hartze prozesuaren zuzendaritzaz, herritarren partaidetzari buruzko aholkularitza emateaz eta parte hartzeko lanak koordinatzeaz arduratuko da. Gutxienez hiru (3) urteko esperientzia egiaztatu beharko da herritarren partaidetzaren arloan.

Profesionalaren erantzukizuneko aitorpenaren bidez egiaztatuko da Esperientzia, eta aldi horretan egindako lan eta jarduera garrantzitsuenak zehaztuko dira.

- Genero-aholkularia

Genero-eraginaren azterlana eta Plan Orokorraren antolamenduaren genero-alderdiei buruzko aholkularitza metodologikoa egiteko, goi-mailako unibertsitate titulua duen pertsona bat izatea eskatzen da, nahitaez genero-ikasketetan espezializatua. Aholkulariak gutxienez hiru (3) urteko esperientzia egiaztatu beharko du genero-eraginari buruzko azterlanak egiten eta/edo hirigintzan genero-alderdiei buruzko aholkularitza metodologikoa ematen.

Profesionalaren erantzukizuneko aitorpenaren bidez frogatuko da esperientzia, aldi horretan egindako lan eta jarduera nagusiak eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten prestakuntza-tituluak zehaztuz.

- Euskara-aholkularia

UPV/EHUko “Hizkuntza Inpaktuaren Ebaluazioa (HLE)” aditu-titulua edo baliokidea izango du.

Profil horietako edozeinek aipatu baldintzak bete beharko ditu. Hala ere, taldekide berriak proposatu ahal izango dira eskakizun horiek betetzeko. Onartu egingo da nahitaezko lanpostu teknikoen zerrenda horretan pertsona batek lanpostu bat baino gehiago betetzea eta, beraz, hainbat eginkizun betetzea, salbu eta taldeko zuzendariaren eta lege-aholkulariaren kasuan. Lantaldea beste lanpostu tekniko edo espezialista batzuekin osatu ahal izango da, bai lanen fase guztietan, bai fase horietako une jakin batzuetan. Taldeak beharrezkoak diren langileak eta baliabide teknikoak izan beharko ditu dokumentuak ezarritako epeetan prestatu eta argitaratzeko.

Talde teknikoak, kontratuko zerbitzu osoan, emakumeak izango ditu taldekide, gutxienez % 40.

7.1 AZPIKONTRATAZIOA:

Aurreko atalean zehaztutako profila duten pertsona guztiak azpikontratatzea onartzen da, salbu eta taldeko zuzendaria eta lege-aholkularia.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004530
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

8. ERREDAKZIO-TALDEAREN OBLIGAZIOAK

Taldearen zuzendariak, Plan Orokorra egiteko lanen kalitatea bermatzeko funtsezko eta oinarrizko elementua, Udaleko zerbitzu teknikoekin harremanetan egon beharko du etengabe. Horretarako, eskatzen zaion guztietan agertu beharko da udal-bulegoetan, aldez aurretik 24 ordu lehenago jakinarazita, zerbitzuak behar bezala emateko; eta, hamabostean behin gutxienez bertan egon beharko du. Halaber, Udalbatzari lagunduko dio Plana idatzi eta izapidetzeko beharrezkoak diren bilera, bisita eta kudeaketa guztietan. Udal bulego teknikoaren eta taldeko zuzendaritzaren arteko bileren egutegia proposatuko da eta bilera bakoitzaren akta jasoko da. Egutegi hori aldatu ahal izango da izapidetzaren prozedura-une bakoitzera egokitzeko.

Bestalde, kontratuaren adjudikaziodunak bere gain hartzen du Udalak onartutako Herritarren Partaidetzarako Programa, eta bertan aurreikusitako lan guztiak egiteko konpromisoa hartzen du. Programa horren 5.5 puntuko 4. fasean ezartzen da tokiko bulego bat izatea aurreikusi beharko dela; eta, bertan, Hirigintza eta Lurralde Antolamenduko ezagutzak dituen teknikari batek, ahal dela arkitekto batek, jasoko dituela herritarrak. Bulego horretan jendea hartzeko ordutegia gutxienez 2 ordukoa izango da goizez eta 2 ordukoa arratsaldez, astean hiru egunez. Ordutegia Udalak zehaztuko du.

8.2. ORDEZKAPENAK ETA BATERAEZINTASUNAK

Proposamenean goian aipatutako profesionalen konpromiso berariazkoa barneratuko da, lana egiteko eta kontratua gauzatzen den bitartean talde gisa proposatzen diren pertsonak edo enpresak kontratuarekin lotzeko. Taldeko kideren bat ordezkatu beharra dagoela iritziz gero, ordezkapena Udal honi proposatu eta justifikatu beharko da. Udalak proposamena baloratu egingo du eta, aldaketa egokitzat jotzen badu ordeztu den pertsonaren antzeko baldintza teknikoak betetzen dituelako, bakarrik kasu horretan onartuko du ordezkapena.

Beste alde batetik, lana adjudikatzen bazaie, Plan Orokorraren erredakzio-taldea osatzen duten Talde Zuzendaritzak eta Aholkularitza Juridikoak bateraezintasuna onartuko dute lan partikularretan edo Eibarko Udal Administrazioaz bestelako erakundeen edo enkarguen ondoriozkoetan parte hartzeko, udalerri honetan egin beharreko jarduketetarako, pleguaren xede den planeamendua idatzi bitartean eta behin betiko onartu eta bi urtera arte.

8.3. EIBARKO UDALAREN IRIZPIDEAK HIZKUNTZA-ERABILERAN

Kontratatutako enpresak zerbitzua emateko, erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan arreta jasotzeko duten eskubidea errespetatu beharko du.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Herritarrei zuzendutako ahozko edo idatzizko informazio guztia ele bitan eman beharko da, helburua eta hartzaileak kontuan hartuta. Kalean jarri beharreko kartel, ohar eta seinaleekin ere horrela jokatuko da. Ahozko zein idatzizko euskarrietan erabilera ez-sexista bermatu beharko da, erabiltzen den edozein hizkuntzatan.

9. EPEAK

Kontratatutako zerbitzuen iraupena zerbitzu horiek benetan gauzatzen diren bitartean luzatuko da, baldintza-orri honen 6. atalean aurreikusitako epeak gorabehera, eta Plan Orokorraren behin betiko onespenaren aurka aurkez daitezkeen errekurtso edo idazkien inguruko txostenak eman arte jarraituko du.

10. ZERBITZUEN PREZIOAK

Zerbitzuen gehieneko kostua 374.979 eurokoa da, BEZa barne.

NAGUSIA PRINCIPAL	BEZA (% 21) IVA (21 %)	GUZTIA TOTAL
309.900 €	**65.079 €**	**374.979 €**

Adjudikaziodunak eskainitako zerbitzu-sarien zenbatekoa finkoa izango da, eta ez da aldaketarik izango zerbitzuen iraupenagatik.

11. INFORMAZIOA LIZITAZIO FASEAN

Enpresa lizitatzaileek agiri hauek kontsultatu ahal izango dituzte Interneten:

Euskaraz:

- Indarrean dagoen HAPO

https://www.eibar.eus/eu/udala/planeamendua/indarrean-dagoen-hirigintza-plangintza/plan-nagusia-hirigintza

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

- HAPOren aldaketa puntualak:

https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DUERegistroPlaneamientoWEB/emaitzak?locale=eu

Herriatarren parte-hartze programa.

https://planorokorra-eibar.eus/eu/node/10332

- Aurrerapenaren agiria:

https://planorokorra-eibar.eus/eu/node/10332

- Irizpideak eta helburuak:

https://planorokorra-eibar.eus/eu/node/10332

12. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNARI EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Planeamenduaren aurreko lanak egiteko behar duen informazio guztia jarriko zaio eskura adjudikaziodunari, udal artxiboetan dagoen informazioa, alegia. Erakunde ofizialetan informazioa lor dezan, planeamendu orokorreko tresna berriaren erredaktorea dela justifikatzen duen egiaztagiri bat emango zaio.

Udalak bere udalerri barruan indarra duten hirigintza-espediente guztiak emango ditu, baita izapidetzen ari direnak ere. Halaber, euskarri informatikoan emango da indarrean dagoen Plan Orokorrari, onetsitako aldaketa puntualei, Aurrerapenari eta planeamenduko irizpide, helburu eta irtenbideei buruzko dokumentazioa.

13. LANEN JABETZA

Eibarko Udala izango da edozein fasetan egiten diren lanen jabea, eta ordura arte egindako lana eska diezaioke adjudikaziodunari. Adjudikaziodunak ezin izango du beretzat hartu kontratatutako lanaren inolako daturik, ezta hirugarrenei eman ere, ez eta haren edukia osorik edo zati batean argitaratu ere. Eibarko Udalak beretzat gordetzen ditu lanaren jabetza intelektuala eta ustiapena.

14. ESKUBIDEEN LAGAPENA ETA ERABILERA

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Kontratu hau betetzeko egingo den dokumentazioa Eibarko Udalaren jabetzakoa izango da, eta Udalak osorik edo partzialki erreproduzitu, argitaratu eta hedatu edo zabaldu ahal izango du, komeni den neurrian, enpresa adjudikatzailearen egiletza jasota.

Horretarako, enpresa adjudikaziodunak Udalaren eskuetan lagatzen ditu Plan Orokorraren lana ustiatzeko eskubide guztiak, jabetza intelektualaren arloan aplikagarria den araudian ezarritakoarekin bat.

15. LANAK ETA DOKUMENTUAK AURKEZTEKO ARAUAK

Lanak eta dokumentuak aurkeztu aurretik, “0” bertsioa (paperean eta euskarri digitalean) aurkeztu beharko da, Eibarko Udaleko Bulego Teknikoak berrikusi ahal izateko.

Dokumentazioa agiri honetan aipatu diren txostenen arabera berrikusi eta zuzendu ondoren, behin betiko agiriak entregatuko dira.

Behin betiko dokumentuek Udalak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak izango dituzte, idatzizkoak, grafikoak eta ikusizkoak, egindako lana behar bezala ulertu eta aurkezteko.

15.1.- DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO FORMATUA:

Dokumentazio guztia, txostenak, erakusketa- eta hedapen-dokumentuak eta abar barne, paperean eta formatu digitalean entregatu beharko da.

Dokumentu osoa Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egingo da.

Dokumentazio guztian bermatuko da hizkuntza behar bezala erabiliko dela eta inolaz ere ez dela erabiliko irudi sexistarik, indarra duten xedapen eta arauei men eginez.

Dokumentazioak Udalari aurkezteko unean indarra duen legeriak eskatzen dituen baldintzak bete beharko ditu.

Dokumentazioa normalizatzerakoan, hauxe hartu beharko da kontuan:

- Formatuak: Formatu horiek nahitaezkoak dira, nahiz eta dokumentua egiteko prozesuan berriz aztertu ahal izango diren, eta beharrezkoa bada Udalaren baimena beharko da. Azalean, aurkibidea jarriko da, agiri bakoitzaren egoera eta planoen zerrenda osoa adierazita.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

- Idatzizko dokumentazioa:

o Euskarria, papera: DIN-A4 tamainako orriak, zenbakituak, liburuetan koadernatuak edo eraztunez edo torlojuez lotutako karpetetan (zenbakituta), azalean eta bizkarrean errotulatuta. Gehieneko neurria: 23 x 32 cm. Paperaren % 100 klororik gabea izango da, eta % 80, gutxienez, paper birziklatua. Gainera, birziklatu gabeko paperaren zuntzak baso-ustiapen jasangarrietakoak izango dira.

o Euskarri digitala, testu-tratamendurako formatuetan, doc eta pdf.

- Dokumentazio grafikoa:

o Planoak ETRS89–UTM30 koordenatuetara egokituko dira, eta erreferentzia-oinarriak berrezarri eta/edo handitu egingo dira. Koordenatuen bidez identifikatuko dira udal mugapea mugatzen duten mugarriak.

o Euskarria, papera: Kopia normal modulatuak, koloretakoak eta DINa-A4 tamainan tolestuak, koadernatuak eta kaxan zenbakituak.

o Euskarri digitala, dwg, shp (gis) eta pdf formatuetan.

o Errotulazioa, honela: Eibarko Udalaren inskripzio-lauki ofiziala, HAPO berriaren logoa, lanaren izena, izapide-fasea, data, eskala, erredakzio-talde teknikoa, arduradunaren sinadura eta Udalaren oniritzia.

Prezioan sartuta daude ale-argitalpenaren gastu guztiak, koadernaketaren, erreprografiaren, digitalizazioaren eta itzulpenaren gastuak; baita lanak egiteko beharrezkoa den beste edozein gastu eta era guztietako joan-etorrietako gastuak.

15.2.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIEN ALE-KOPURUA:

Fase bakoitzaren amaieran, hiru (3) ale aurkeztu beharko dira paperean, karpetatan, eta hiru (3) ale oso euskarri digitalean.

16. KONTRATUAREN ZUZENDARITZA

Adjudikaziodunarekin sinatu beharreko kontratu honetako lanak Eibarko Udaleko Hirigintza Sailak gainbegiratuko ditu. Zuzendaritza- eta gainbegiratze-lan horietan, besteak beste, alderdi hauek sartzen dira:

- Baldintza teknikoen agiri honetan eta adjudikaziodunarekin egindako kontratuan ezarritako lan-irizpideen osagarri diren lan-irizpideak zehaztea.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004530
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

- Fiskalizatzea lanak egiteko prozesua, lanen kalitatea eta ezarritako epeetan proposatutako helburuen betetze-maila; eta, hala badagokio, behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea.

- Entrega partzialak eta, entregatu ondoren, lan guztiak kontrolatu, fiskalizatu eta jasotzea; eta, hala badagokio, zuzendu beharreko akatsak identifikatzea.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
3e843e3baf79c8848697efecb5d779b734737bb9
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: **DS-202600004530**
Baliozkotze-URLa / URL de validación: **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
MARIA ELENA JUARISTI URDANGARIN	11/09/2026 11:24:57